



GIPUZKOA




ETA EUROPAR BATASUNA

20. HILABETEKO IRUZKINA

> 2010eko Urria





BIZTANLERIA ATZERRITARRA GIPUZKOAN ETA EUROPAR BATASUNEAN

> Atzerritarrak Europar Batasuneko guztizko biztanleriaren % 6,4 dira. Gipuzkoan %6,0koa da portzentajea.


Europar Batasuneko 27 herrialdeak batera hartuta, 31,9 milioi pertsona atzerritarrak dira. Horietatik 11,9 milioi EBko beste estatu batzuetakoak dira (% 37), Eustat-ek 2009ri dagokionez argitaratutako datuen arabera. Gainontzekoak beste herrialde europar batzuetakoak (% 23), afrikarrak (% 15), Asiarak (% 13), Amerikarrak (% 10) eta Ozeaniarrak (% 1) dira.

Portzentajeei erreparaturaz, biztanleria atzerritarrak % 6,4ko ekarpena egiten dio biztanleria europarrari, % 2,4koa da portzentajea EBko beste estatu batzuetako biztanleriaren kasuan eta % 4,0koa munduko gainerako herrialdeetako biztanleriaren kasuan.

EBko kide diren estatuen artean, Luxenburgori dagokio portzentajerik altuena (% 44) eta ondoren daude Letonia (% 18), Zipre (% 16), Estonia (% 16), Espainia (% 12), Irlanda (% 11) eta Austria (% 10).

Kopuru absolutuei erreparaturaz, honakoak biztanle atzerritar gehien bizi diren herrialdeak: Alemania (7,2 milioi, guztizkoaren % 9), Espainia (5,7 milioi, % 12), Erresuma Batua (4,0 milioi, % 7), Italia (3,9 milioi, % 7) eta Frantzia (3,7 milioi, % 6).

Gipuzkoaren kasuan, 42.196 pertsonak osatzen dute biztanle egoiliar atzerritarren taldea (2010eko urtarrilaren 1eko Erroldako datua), hau da, guztizko biztanleriaren % 6,0, eta horietatik % 1,9 EBko beste estatu batetatik datoz. Hortaz, Gipuzkoako tasa EBkoa baino pixka bat baxuagoa da: EBko 15 estatutako enaren gainetik dago eta gainerako 12enaren azpitik.




Biztanleria atzerritarra EB-27n eta Gipuzkoan (%)

	Beste nazionalitate bat duen biztanleria		
	Guztira (%)	EB-27ko beste estatu batekoa (%)	Munduko gainerako herrialdeetako (%)
EB-27	6,4	2,4	4,0
GIPUZKOA	6,0	1,9	4,1
Belgika	9,1	6,2	2,9
Bulgaria	0,3	0,0	0,3
Txekiar Errepublika	3,9	1,4	2,5
Danimarka	5,8	2,0	3,8
Alemania	8,8	3,1	5,7
Estonia	16,0	0,7	15,3
Irlanda	11,3	8,2	3,1
Grezia	8,3	1,4	6,8
Espainia	12,3	5,0	7,4
Frantzia	5,8	2,0	3,8
Italia	6,5	1,9	4,6
Zipre	16,1	9,8	6,3
Letonia	17,9	0,4	17,5
Lituania	1,2	0,1	1,2
Luxemburg	43,5	37,6	6,0
Hungaria	1,9	1,1	0,8
Malta	4,4	2,0	2,4
Holanda	3,9	1,8	2,1
Austria	10,3	3,8	6,6
Polonia	0,1	0,0	0,1
Portugal	4,2	0,8	3,4
Errumania	0,1	0,0	0,1
Eslovenia	3,5	0,2	3,3
Eslovakia	1,0	0,6	0,4
Finlandia	2,7	1,0	1,7
Suedia	5,9	2,8	3,2
Erresuma Batua	6,6	2,6	3,9

Iturria: Eurostat (2009ko datuak) eta EIN (Gipuzkoako datuak, 2010eko urtarrilaren 10ean)

Atzerrian jaiotako biztanleei dagokienez, % 7,2ko portzentajea dute Gipuzkoan (% 2,2 EBko estatutakoak), eta % 9,3koa da portzentaje hori Europar Batasunean (% 3,1 EBko estatutakoak).




> Azken hamarkadan boskoiztu egin da biztanleria atzerritarra Gipuzkoan

Mende hasieran, 2000. urtean, nazionalitate atzerritarreko 7.903 pertsona bizi ziren Gipuzkoan. Hamar urte ondoren, boskoiztu egin da kopuru hori, 42.196 pertsonara iritsi delarik.

Portzentajeei erreparatuz, hamarkadaren hasieran % 1eko agerpen eskasa zuen biztanleria atzerritarrak; 2010ean % 6ra iritsi da.

Biztanleria atzerritarra Gipuzkoan (%)



Europako herrialdeetan hazkunde apalagoak ezagutu dituzte. Horrela, populazio altuena duten bost herrialdeetan -herrialde horietan bizi dira EB-27ko biztanleen % 63-, % 5etik % 8ra pasa da ratio hori.

Herrialde horiek bilakaera desberdinak ezagutu dituzte: Alemaniako ekarpen egonkorretik, Espainiako hazkunde bortitzera.

Biztanleria atzerritarra Europar Batasuneko estatu nagusietan

Urtea	Alemania	Frantzia	Erresuma Batua	Italia	Espainia	EB-5
2000	8,9	5,4	4,2	2,2	2	5,1
2005	8,8	5,8	5,1	4,1	7,8	6,4
2009	8,8	5,8	6,6	6,5	12,3	7,8

Iturria: Eurostat.




> **Europar Batasunean Turkiatik dator agerpen handieneko biztanleria atzerritarra. Gipuzkoan, Portugal, Errumania eta Marokotik**

Europar Batasuneko 27 estatuetan, biztanle atzerritarren % 37k Europar Batasuneko beste herrialde batetako nazionalitatea dute. Gainerako % 63ri dagokionez, beste herrialde europar batzuetatik etorri dira % 20, Afrikatik % 15, Asiatik % 12, Amerikatik % 10 eta Ozeaniatik %1, eta nazionalitate ezezaguna dute % 5ek.

Europar Batasunean egoiliar gehien dituzten jatorri-herrialdeak Turkia, Errumania eta Maroko dira. Jarraian daude Polonia, Italia, Albania, Portugal, Erresuma Batua, Alemania eta Txina.

Europar Batasuneko estatuetako biztanle atzerritarrek jatorri anitzak dituzte eta banaketa oso heterogeneoa dute. Horrela, Turkia da jatorri nagusia Alemania, Holanda eta Danimarkan; Errumania da Hungaria, Italia eta Espainian; Portugal da Luxenburgo eta Frantzian, eta Errusia da Bulgaria, Lituania eta Finlandian, bai eta Letonian ere.

Europar Batasuneko estatuetan nagusitzen diren beste herrialde batzuen artean, honakoak aipa daitezke: Ukraina, Albania, Serbia, Moldavia, Bosnia, Brasil, eta Polonia, Erresuma Batua, Alemania eta Finlandia.



Biztanleria atzerritarra Europar Batasunean (guztizkoaren %)


	1. hiritartasun-herrialdea	2. hiritartasun-herrialdea	3. hiritartasun-herrialdea
EB-27	Turkia (% 8)	Errumania (% 6)	Maroko (% 6)
GIPUZKOA	Portugal (% 10)	Errumania (% 10)	Maroko (% 10)
Belgika	Italia (% 17)	Frantzia (% 13)	Holanda (% 13)
Bulgaria	Errumania (% 37)	Ukraina (% 9)	Grezia (% 7)
Txekiar Errepublika	Ukraina (% 30)	Eslovakia (% 20)	Vietnam (% 12)
Danimarka	Turkia (% 10)	Irak (% 6)	Alemania (% 6)
Alemania	Turkia (% 25)	Italia (% 8)	Polonia (% 6)
Grezia	Albania (% 64)	Ukraina (% 3)	Georgia (% 2)
Espainia	Errumania (% 14)	Maroko (% 12)	Ekuador (% 8)
Frantzia	Portugal (% 14)	Aljeria (% 13)	Maroko (% 13)
Italia	Errumania (% 18)	Albania (% 12)	Maroko (% 11)
Letonia	Ezezaguna (% 90)	Errusia (% 7)	Lituania (% 1)
Lituania	Errusia (% 30)	Bielorrusia (% 11)	Estaturik gabe (% 10)
Luxemburg	Portugal (% 37)	Frantzia (% 13)	Italia (% 9)
Hungaria	Errumania (% 37)	Ukraina (% 10)	Alemania (% 8)
Malta	Erresuma Batua (% 27)	India (% 6)	Serbia (% 5)
Holanda	Turkia (% 14)	Maroko (% 11)	Alemania (% 9)
Austria	Serbia eta Mont. (% 16)	Alemania (% 14)	Turkia (% 13)
Polonia	Alemania (% 21)	Ukraina (% 11)	Errusia (% 6)
Portugal	Brasil (% 16)	Cabo Verde (% 15)	Ukraina (% 9)
Errumania	Moldavia (% 21)	Turkia (% 8)	Txina (% 7)
Eslovenia	Bosnia-Herz. (% 47)	Serbia (% 20)	Mazedonia (% 11)
Eslovakia	Txekiar Errepublika (% 15)	Polonia (% 10)	Ukraina (% 9)
Finlandia	Errusia (% 20)	Estonia (% 15)	Suedia (% 6)
Suedia	Finlandia (% 15)	Irak (% 8)	Danimarka (% 7)
Erresuma Batuan	Polonia (% 10)	Irlanda (% 9)	India (% 8)

Iturria: Eurostat (2008ko datuak. Ez dago Zipre, Estonia eta Irlandako daturik) eta EIN (Gipuzkoako datuak, 2010eko urtarrilaren 1ean).

Gipuzkoan biztanleriaren % 32 EBko beste estatu batetatik etorri dira eta % 4 Europako gainerako herrialdeetatik. EBren kasuan, Amerikako pertsonen agerpena (% 43) azpimarratu behar da, eta antzekoa da jatorri Afrikarreko pertsonen agerpena (% 15) eta baxuagoa Asiakoena (% 6).





Biztanleria atzerritarra Gipuzkoan



Gipuzkoako egoiliar atzerritarren artean Portugaldarrak, Errumaniarrak, Marokoarrak, Ekuadortarrak eta Kolonbiarrak nagusitzen dira.

Biztanleria atzerritarren talde nagusiak Gipuzkoan (%)






Gipuzkoako hogei nazionalitate-talde nagusi

HERRIALDEA/EREMUA	Kopurua	%
Portugal	4.328	10,3
Errumania	4.246	10,1
Maroko	4.242	10,1
Ekvador	3.138	7,4
Kolonia	2.937	7,0
Nikaragua	1.887	4,5
Brasil	1.514	3,6
Bolivia	1.437	3,4
Argentina	1.347	3,2
Frantzia	1.188	2,8
Italia	991	2,3
Ukraina	969	2,3
Txina	959	2,3
Honduras	932	2,2
Dominikar Errepublika	891	2,1
Pakistan	797	1,9
Kuba	780	1,8
Aljeria	739	1,8
Alemania	610	1,4
Erresuma Batuan	587	1,4
EB-27	13.554	32,1
Europako gainerako herrialdeak	1.775	4,2
Afrika	6.344	15,0
Iparramerika	694	1,6
Erdialdeko Amerika eta Karibea	4.668	11,1
Hegoamerika	12.809	30,4
Asia	2.307	5,5
Ozeania	41	0,1
GUZTIRA	42.196	100

Iturria: EIN (2010eko urtarrilaren 1a).



- > Biztanleria atzerritarra gazteagoa da Gipuzkoan Europar Batasunean baino, eta biztanleria nazionala, berriz, zaharragoa.

Europar Batasuneko biztanleria atzerritar egoiliarren batez besteko adina 34,3 urtekoa da, biztanleria nazionalarena, berriz, 41,2 urtekoa. Gipuzkoan 31,6 urtekoa da biztanleria atzerritarren batez besteko adina; 43,6 urtekoa da biztanleria nazionalarena.

Gipuzkoako biztanleria atzerritarra gazteagoa da, denbora gutxiago daramatelako bertan; gainera, biztanleria nazionalaren adin zaharragoa orekatzeko balio du.

Biztanleria nazionalaren eta atzerritarren batez besteko adina

	Batez besteko adina (urteak)			
	Nazionala	Atzerritarra		
		Guztira	EB-27	Gainerakoa
EB-27	41,2	34,3	36,9	33
GIPUZKOA	43,6	31,6
Bulgaria	41,2	39,4	34,1	40,3
Txekiar Errepublika	39,6	34,7	36,8	33,7
Danimarka	41,0	32,1	33,7	31,2
Alemania	44,5	36,6	40,1	34,7
Estonia	37,3	49,3	38,1	49,8
Irlanda	33,9	33,7	33,9	33,1
Grezia	42,6	34,1	44,0	32,2
Espainia	41,1	32,6	35,5	31,1
Frantzia	39,3	38,3	46,2	34,1
Italia	43,9	32,3	32,9	32,0
Letonia	36,5	52,4	38,4	52,7
Lituania	39,0	33,4	39,6	32,5
Luxemburg	43,0	34,9	34,9	34,9
Hungaria	39,7	37,4	37,7	37,0
Malta	39,2	36,6	48,4	30,6
Holanda	40,8	34,0	36,1	32,6
Austria	42,3	33,9	35,5	32,9
Polonia	37,8	42,4	49,8	40,0
Portugal	40,9	34,0	38,0	33,3
Errumania	37,9	34,1	40,3	33,1
Eslovenia	41,4	37,3	41,7	37,1
Eslovakia	36,7	36,0	38,0	32,9
Finlandia	42,1	33,0	36,2	31,3
Suedia	41,3	34,0	39,1	30,7


Iturria: Eurostat, 2009ko datuak




- > Gipuzkoako biztanle atzerritar egoiliarrek 20tik 39 urtera bitarteko adin-tartean sartzen dira.

Biztanleriaren piramideak erakusten duenez, Gipuzkoan tarteko adina duten biztanle atzerritarren agerpena handiagoa da. 20tik 39 urtera bitarteko adin-tartean dauden pertsonen kopuru altua azpimarratu behar da. Gipuzkoako biztanle atzerritar egoiliarren % 56 sailkatzen dira adin-talde horietan; Estatuan, ordea, % 25ekoa da portzentajea.

Biztanleria atzerritarra adin-taldean eta sexuaren arabera



Iturria: EIN



Biztanleriaren guztizkora egiten den ekarpenaren ikuspegitik, eta datuak zehatzago berezita ikus daitekeen moduan, 25-29 urteko adin-taldearen kasuan biztanleria atzerritarrek % 15eko ekarpena egiten dio adin-tarte horretako guztizko biztanleriari; 20-24 adin-tartean % 13koa da portzentajea, % 12koa 30-34 adin-tartean eta % 9koa, azkenik, 35-39 adin-tartean.

Biztanleria atzerritarra eta espainola adin-taldean arabera

Adin-taldea (urteak)	Atzerritarrek (%)	Espainolak (%)
0-4	4,0	5,1
5-9	3,8	4,8
10-14	4,3	4,2
15-19	5,4	4,0
20-24	10,7	4,3
25-29	16,3	5,5
30-34	16,5	7,6
35-39	12,7	8,0
40-44	9,5	7,9
45-49	6,4	7,8
50-54	4,4	7,4
55-59	2,5	6,6
60-64	1,3	6,7
65-69	0,8	5,3
70-74	0,6	4,4
75-79	0,4	4,5
80-84	0,2	3,2
85 eta gehiago	0,2	2,7
0-14	12,1	14,1
15-24	16,1	8,3
25-64	69,6	57,5
65 eta gehiago	2,2	20,1
Gizonezkoak	52,3	48,9
Emakumeak	47,7	51,1
GUZTIRA	100,0	100,0

Iturria: EIN



> Informazio gehiago

Eurostat:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-10-045/EN/KS-SF-10-045-EN.PDF

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-09-094/EN/KS-SF-09-094-EN.PDF